

## Elosegi'n Jauregia Menditik ikusia...

FOR MATXIN LABAYEN

Polita —ederra— da mendia, Tolosako zulotik ikusia... Zulo atsegiñ— more ontatik— ikusten ez dana ez da inondik ikusten. Orra zure aurrea'n orlegi eta zillar, Uzturre Erniozabal— Otsabio eta bai ta ere Txindoki arroa— gizadi kan-kallu baten antzera, mundu osoa zirikatzen.

Baña ori dena gauz ederra balin ba da— askoz ederragoa— atsegiñagoa da Tolosa— mendi goitik— gailurretik ikusia.

Etxeak txiki txikiak— kolorezko arri kozkorak bezela agetzen dira ta bai paragarriak! Ta gu kaiol oietan bizi bear!

Montskue aldera igotzen ba zerate udazken goiz zoragarri batea'n— (Montskue).

Maitagarri'n Egoera— beraldea begiraten ba dezute— eskubi aldera— ara nun agertuko dan— mirariz bezela— urrezko zuaitz tartea'n izkutua— lotsa balin ba zun bezela, Elosegi'n Jauregia—.

Or dago bai— laixter botatzera dijoazen gure begi askoko mamu urdiñ— zillarrezkoa— bere Paradiso Debekatua'n giltzapea'n sartuta— aundiak eta txikiak arriturik bere edertasun apaiñaki'n.

Diotenez aspaldi aspaldia'n— bizia errex atsegiñ eta paketsua zan denboran— Mamu bizi bizi indartsua zan— ez gaiztoa— bañan bai pixka bat andrezalea.

Ta andre asko omen zitun— denak eder-gazte buru ariñ jostalari ta lasaiak.

Bañan beretzat kutunena ille orizko gazte lilluragarri bat zan— bai zoragarria benetan!

Gauko illargi zuriak— gauare'n mezudun apal begiluzeak zer gauz arrigarri, xamurak gozoak— ez zituan ikusiko! Bañan ara noizbait goiko menditik azturu zital— bekaizti bat etorri— ta gure mamua Jauregia biurtu ta Andreak Zuaitz. Goitik ikusten dan zuaitz ori ori aundi bat— baratzan dan ederrenetakoak— urasen zan Mamuare'n amodio bizia.

Ta orixe dena gutxi ba zan— orain (orain) bai Jauregia— bai zuaitzak— orain-go pixti gaiztoak— makinak— (ankazgora) botako.

Ta ba dakizute nere lagunak— iltzera dijoazen— gauzak bai etxe zarrak—



bai zuaitz urtetsuak— beti ta beti gure aurrea'n euki ditugunak gure biotzak poz-  
tuak— aresti auetan maitagarriagoak— kutunagoak agertzen dira.

Denborak eta gutxiago oraingoak ez du ezer barkatzen-dena ondatu-xeetu-za-  
paldu bear du— bai ta ere edertasuna askoetan ez dakigu zerqatik— bañan  
zoritarrez ala da eta orren kontra ezin burruka egin paregabeko Artiak!

Noski Artia ez dalako Mundu ontakoa!

Agur Elosegiko Jauregia— Agur Zuaitz ori ta gorriak— agur denori eta noiz-  
bait alkartuko al gera beti zoriontsu bizitzeko— denok berriz berpiztuta— ede-  
rragoak— politagoak ezilkorak— antziñeko Jainko Zaarrak bezela— Olimpo zi-  
ñezke— zuri urrun batea'n!

Bañan ori etorri arte— umezurtz izango gera denok— artista denok noski—

Begira!di gozoko umeak— ume errugabeak— munduko artista oberenak—  
ain irripar zoriontsua dutenak eta— besteok aundiak umeak ere bai.